

# IKASLE EGUNA: abenduak 5

	<b>EKINTZA</b>	<b>SAIOAK</b>	<b>ADINA</b>	<b>KOPURUA</b>
	“Zuzeneko kontzertua”	Saio bakarra: ▪ 11:00 – 12:00	DBHko ikasleak	300 ikasle
	“Egun batez idazle” YOLANDA ARRIETA	3 saio: ▪ 10:30 – 11:30 ▪ 12:00 – 13:00 ▪ 14:30 – 15:30	LH 4.mailako ikasleak	20-25 ikasle saioko
	“Egun batez kazetari” ANBOTO astekaria	2 saio: ▪ 10:00 – 12:00 ▪ 13:30 – 15:30	LH 5. eta 6. mailako ikasleak	25-30 ikasle saioko
	“Elkarrizketak Azokatik zuzenean” GOIENA	Saio bakarra: (goizean zehar baina zehazteke)	16 urtetik gorako ikasleak	10 ikasle
	“Ahotsenea ezagutuz” - JON ARRETXE - EH SUKARRA	Saio bakarra: ▪ 10:30 – 12:00	DBH 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko ikasleak	100 ikasle
	“Bikoizketa tailerrak” ZINEMA EUSKARAZ	4 saio: ▪ 10:30 – 11:30 ▪ 11:45 – 12:45 ▪ 13:00 – 14:00 ▪ 14:15 – 15:15	DBHko ikasleak	20 ikasle saioko
	“Irudiak eraikiz” MIREN GONZALEZ	2 saio: ▪ 11:00 – 12:30 ▪ 14:00 – 15:30	LHko ikasleak	20-25 ikasle saioko
	“Popcorn eta Thimble erabiliz zure sormena landu” GORKA JULIO	2 saio: ▪ 11:00 – 12:00 ▪ 12:00 – 13:00 <i>13:00tan erakusketa eta sari banaketa</i>	LH 5. eta 6.mailako eta DBHko ikasleak	30 ikasle saioko
	“Antzokiaren barruak” KARRIKA	3 saio: ▪ 10:30 – 11:15 ▪ 12:00 – 12:45 ▪ 14:00 – 14:45	LH 5.eta 6. mailako ikasleak	40 ikasle saioko
Durango Hiria turismo bulegoa standa	“Ondarea dastatzen”	3 saio: ▪ 11:00 – 12:00 ▪ 12:00 – 13:00 ▪ 13:00 – 14:00 <i>15:30tan sari banaketa</i>	LHko ikasleak	20-25 ikasle saioko

## **48. Durangoko Azoka: IKASLEEN EGUNA**

### **PLATERUENEA : “Zuzeneko kontzertua”**

Euskal kantagintzaren kanta ezagun eta entzutetsuen transmisioa helburu, garai eta estilo desberdinak markatu zituzten kanten bertsioren zuzeneko bat eskainiko dugu.

Zuzeneko horretan, eskenatokian jarriko den pantailan, aukeratzen diren kanten egileen/taldekideten elkarrizketa zatiak proiektatuko dira. Euskal musikari mitikoen mezuak, gazteenganako mezu zuzenak, euskal kulturaren aldeko mezu zuzenak helaraziko dira. Propio azokarako egingo diren elkarrizketak izanik, ikasle lagin horri erakargarria suertatu dakioken hizkuntza erabiliko da.

Zuzeneko baten prozesu guztia, barruko guztia erakuste aldera, takilan sarrera jaso beharko dute, taldea eszenatokira igotzeko itxaron beharko dute, zerbait hartuko dute tabernan nahi izanez gero eta kontzertu aurreko kamerinoko uneak proiektatuko dira.

\* *Ikastetxeari eskatuko zaion aurretiazko lana:* Zuzenekoan aurkeztuko diren abestien lanketa egiteko proposamen desberdinak aurkeztuko dituen dosierra bidaliko zaie ikastetxera. Kantak, ikuspuntu desberdinetatik lantzeko aukera izango dute ikasgelan (gaia, testuinguru politikoa, doinuak, bertsoak, poetak...)

### **SAGUGANBARA: “Egun batez idazle” eta “Egun batez kazetari”**

Ikasleei idazle eta musikarien lana gertutik ezagutzeko aukera emango diegu bi tailerren bitartez.

“Egun batez idazle” tailerra Yolanda Arrieta idazleak eskainiko digu eta saio horren bitartez, idazketa sortzailerako abiapuntua landuko da. Literaturaren ezaugarri nagusiak abiapuntuzat hartuta, idazketa sortzailearen bidez hurbilduko gara fikziora, talde eta jolas giroan.

Orri zuriaren izuari aurre egiteko baliabideak ikusi eta frogatuko ditugu, nitik gurako bidean, irudimenari eta arkatzari tartea eginez eta idazle izatera jolastuz, oinarrizko baliabideak deskubritu eta trebatzeko bidean.

“Egun batez kazetari” tailerra Anboto astekariak eskainiko digu eta kazetaritzaren ikuspuntutik landuko dugu Azoka. Kazetaritza lantzeko tartetxo bat izango dugu eta jarraian, idazle bati eta musikari bati elkarrizketa bat egingo diogu (galdetegia prestatu, bateratu, galderak adostu, pertsonaia elkarrizketatu, albistea sortu eta argitaratu).

\* *Ikastetxeari eskatuko zaion aurretiazko lana:* Elkarrizketatuko den idazle edo musikariari buruzko informazioa ikasgelan lantzea (biografia, ibilbidea...)

### **AZOKA TV: “Elkarrizketak Azokatik zuzenean”**

Azoka TV-k saio bat ekoiztuko du azoka bertatik zuzenean. Lau elkarrizketek osatuko duten saio bat izango da. Ikasleen artean, lantalde bat osatuko da; aurkezle lanak egin, elkarrizketak lotu, elkarrizketatuaren gaineko informazioa bilatu, elkarrizketa prestatu...

\* *Ikastetxeari eskatuko zaion aurretiazko lana:* Aurrez elkarrizketak beraiek lotu, saioaren eskaleta eta gidoia prestatu... (Goienakoekin adostu beharrekoak)

### **AHOTSENEA: “Ahotsenea ezagutzuz”**

Ahotsenea gunea gertutik ezagutzeko aukera izango dute parte hartuko duten ikasleek eta horretarako, saio bakarrean hiru ekintza eskainiko zaizkizue: Ahotsenearen aurkezpena, idazle batekin elkarrizketa eta musika talde batekin beste elkarrizketa bat.

Saioa hiru zatitan banatuta:

- 10:30-11:00: Ahotsenearen aurkezpena; zer da, nola sortuta, zelan kudeatu...
- 11:00-11:30: Jon Arretxe idazlearekin elkarrizketa, “612” liburuari buruzkoa
- 11:30-12:00: EH Sukarra taldearekin elkarrizketa

## **48. Durangoko Azoka: IKASLEEN EGUNA**

\* *Ikastetxeari eskatuko zaion aurretiazko lana:*

- Jon Arretxe idazlearen “612” liburua irakurrita eta landuta izatea eta galderak prestatuta. Idazlearen informazioa irakurrita.
- EH Sukarra taldearen ibilbidea, diskografia eta informazioa lantzea ikastetxean

### **IRUDIENEA: “Bikoizketa tailerrak”**

Irudienean gazteek bikoizketaren prozesua eskainiko dute, bertan izango diren bikoizle profesionalekin. Ondoren, beraiek egingo dituzte bikoizketak, pantaila aurrean daukatela eta emaitza entzun eta ikusteko aukerarekin.

### **ARETO NAGUSIA: “Irudiak eraikiz”**

“Irudiak eraikiz” ilustrazio tailerra eskainiko dugu Miren Gonzalezen eskutik. Berak egindako adibideak erakutsiko ditu. Testuak irakurritz, nola eta zergatik dauden ilustratuak azalduko du. Trazoaren, kolorearen, konposizioaren eta maketazioaren garrantziaz hitz egingo du. Nola antolatu elementuak paperean, nahi dugun hori adierazteko.

Ondoren, argazki muntaketa landuko da, zuzeneko adibidea azalduko da eta azkenik, partaide bakoitzak collage teknikarekin orrialde bat maketatuko du.

### **SZENATOKIA: “Antzokiaren barruak”**

Zer gertatzen da antzokian argiak itzaltzen direnean? Zer da hor barruan gertatzen dena guk magia apur batez disfrutatzen dugun bitartean?

Antzokia martxan dagoen bitartean barruetara bidaiatxo bat proposatzen dizuegu. Magia, antzezpena gertatzen ari den bitartean, atzean zer gertatzen den ikusi ahal izango duzue. Antzezleak, teknikariak, zuzendaria...obra baten azken ikutuak eta...baliteke antzezpena bere horretan ikusi ahal izatea.

### **K@BIA: “Popcorn eta Thimble erabiliz zure sormena landu”**

Mozilla Popcorn eta Thimble erabiliz bideo edizio interaktiboa eta html5 webgune sorkuntza landuko da ikasleekin. Helburua, teknologiararen erabileraren bidez sorkuntza era dibertigarri batean lantzea.

Mozilla Popcorn: Bideoen gaineko edizioa egiteko aukera izango dute gazteek.

Mozilla Thimble: Plantilak erabiliz webgune dibertigarriak ere egiteko aukera izango dute.

Taldeka egiten dituzten sorkutzak kontutan hartu izango dira eta bukaeran erakutsi eta bi hoberenak (Webgunea eta Bideoa) sarituko dira.

### **DURANGO HIRIA-TURISMO BULEGOA: “Ondarea dastatzen”**

Durangoko kultura ondarea eta sorkuntza uztartuko dituzten tailerrak eskainiko ditugu Hazi Fundazioaren laguntzaz. Bisita gidatu batean, Durangoko hiru ondare eraikin eta beraien historia ezagutzera emango dira. Ikasle taldeak elementu hauek otarteko batean isladatuko dituzte (hirukoteka lan eginez) Lariz Dorrean gauzatuko den tailerrean.

Klase bakoitzak, otarteko bat aukeratu beharko du, eguerdi tartean gauzatuko den sari lehiaketara aurkezteko.